

18.500 pertsona hurbildu ziren Getxoko Liburu Azokara pasadan asteburuan

GETXO.- Joan den igandean Getxoko Liburu Azokaren 10. ekitaldia bukatu zen eta jasotako emaitza ezin hobeia izan da. Guztira, apirilaren 20tik 23ra 18.500 lagunek bisitatu dute azoka (iaz 17.000 bisita jaso ziren) eta hau dela eta antolatutako ekitaldietan parte hartu dute, eguraldi txarra izan arren. Aurten Ipar Amerikako indiarren mundua izan du ardatz nagusia azokak. Algortako Geltokiko plazara hurbildu direnak Getxoko hamar liburutegien standak bisitatzeko aukera izan dute, literaturaren azken berriak, komikiak, haurrentzako ipuinak edo aukerako liburuak erosteko. Aurtengo obrarik salduena Mikel Martinez argazkilari getxotarraren "Getxoko Jaiak 2006: Photoalbum" argazki bilduma izan da.

Izan ere, bertoko autoreak izan dira salduenak 2007ko azokan: Ramiro Pinillaren "La higuera" izan da gaztelaniazko libururik ospetsuena.

Euskarazko salmentari dagokionez, Unai Elorriagaren "Vredaman " lana izan da salduena. Azkenik, "Kika supersorgina" eta "Gerónimo Stilton" bildumen liburuak izan dira gaztetxoek gustukoena.

Ohikoa denez, hainbat ekitaldi izan dira Azokan, horietako gehienak aurtengo gaiari lotuta: zirkoaren mundua, hain zuzen ere. Aurten, tailerrak, irakurtzeko txoko bat eta kontu-kontalari saioak izan dira. Halaber, argazki zaharren erakusketa egon da aurtengo azokan. Bertan San Nikolaseko Liburutegiko argazki bildumako hainbat garaitako argazkiak egon dira ikusgai. Azkenik ohiko jendaurreko irakurketa ospatu zen oraingo honetan ere, Getxoko ikasleren eskutik. Aurtengoan, 300 ikaslek parte hartu dute ekitaldi honetan ipuinak zuzenean irakurtzeko.